



## KOSTU EGITURAK

Gure produktuaren **kosturik garrantzitsuenak**, banaketa kanala eta ekoizpen kostuak izango dira. Hau da, produktua ekoizten duen enpresatik salmenta puntura eramateak duen kostua eta produkzioak berak sortzen duen gastua alegia.

Kostuei dagokionez, gure enpresak **kostu finkoak eta bigarren mailako kostuak** izango ditu. Alde batetik, hornidura kostuak eta bestaldetik, ofizinako materialak, hala nola; inprimagailua, ordenagailuak, argindarra, idazteko materiala, enpresako mugikorra...

**Kostu aldagarrien kasuan** berriz, gure produktuak ez du kostu aldagarririk izango baina ordulariaren ezaugarrien arabera, lehen aipatu dugun bezala, prezioa aldatu egingo da.